

Antziñako fotografixia



Kale Zaharreko Kurtzia

Ezta urte asko **Kale Zaharraren** mutur hau itxuraz aldatu dala. Fotografixiak, dana dala, berrogei bat urte izango ditu. Izan be, oraindiok kaleko adokiñak bistan dagoz eta aldamenetako espaloiak orainguk baiño askoz zabalaguak dira. Ikusi, bestalde, kaliak argiketako ebalten ziran farolak.

Kalebarren honek azkenengo urte honeitan euki ditu aldakuntzarik sakonenak: ezkerrian agerketan dan **Petokiñe-neko** etxia bota eta barrixak jaso ditue; **Arboleda txikiña** izena eukana gehituago txikiitu da, arbola bat gutxiagorekin geratu da eta; **Santi Krutz** ermitiari, azkenik, erantsitta zittuan **Kurtzetxo** izeneko etxia eta aurreko aterpeia kendu egin xaue.

Herrirako sarrera-urteixeratan egoten ziran kurtziatariko bat zan Kale Zaharreko hau. Oñatin baziran beste bi:

Kurtzebaltz, orain Bidaurretako borobillian daguena, eta **Al-tzibarko kurtzia**, baserri horren inguruan eguena (benediktinen kolejixo aurrian) eta mende honen hasieran edo ezkutau zana. Kurtzetxokua 1884an konpondu zan **Jose Legorburu** abade eta maixu itsuaren eraginez, argazkixan dakon tankera hartuaz. Ehun urte beranduago santutxu hau lehengo itxurara bueltau da, Santo Kristuaren ordez harrizko kurtze soillaz eta gehittutako atari eta etxe barik.

J.E.

Joxe Fernandezek itxi dosku argazkixa.



KONTRATAK
IRUROK, S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis. • Tfnoa 77 09 92
20500 ARRASATE

San Lorenzo, 39 • Tfnoa: 78 21 82
20560 ONATI